



**Arartekoaren 2023S-1851-22 Ebazpena, 2023ko uztailaren 14koa. Honen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentuari iradokitzen dio ordaintzeko dauden bitarteko elektronikoez gain ordainbide arruntak gaitu ditzala A-636 bideko kanona ordaindu ahal izateko.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak kexa bat izapidetzea onartu zuen. Bertan, kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamentuak txartel bidezko ordainketa ezarri izanarekin departamentuaren eskumeneko azpiegiturak erabiltzeko eskatutako kanona ordaintzeko orduan.

Bereziki, kexagileak dio A-636 BEASAINBERGARA autobiarren erabiltzailea dela, [azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauak](#)— Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duenak—araututako erabilerazatia (aurrerantzean, kanona arautzen duen 4/2020 Foru Araua), eta kanon arautua ordaintzeko ordainbideak honako hauek direla zehazten du:

- a) TAG gailua.
- b) Erregistro telematikoa, Bidegi SAren webgunearen bidez, garatu daitezkeen beste sistema telematikoaren bidez, banku txartela edo erregistro telematikoak etorkizunean onar dezakeen beste edozein ordainbide adieraziz.
- c) AP-8 edo AP-1 autobideetako ordainleku bideratuetan erabilitako banku txartela, Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez zehaztutakoaren arabera.

Idazkian, kexagileak adierazi zuen aipatutako errepidea erabiltzen duela, eta, beraz, bide horren kanona ordaindu behar duela, baina ez dago ados gaituta dauden ordainbideekin. Zehazki, kexagileak dio Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, SA entitateari (aurrerantzean Bidegi) eskatu diola bidaiak banku-transferentzia bidez edota eskudirutan ordaindu ahal izatea, kanona biltzeko, ordainarazteko eta kudeatzeko eskumena duen entitatea den aldetik; alabaina, aukera hori ukatu diote, aipatutako Foru Arauaren 10. artikulua aurrez aipatutako a, b eta c aukerak arautzen dituelako.

Halaber, kexagileak adierazi du Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo eskudunaren zehatzeko proposamenak jaso dituela zor dituen zenbatekoak ez ordaintzeagatik Bidegi jarritako salaketan harira.





2. Egitate horiek ikusirik, Arartekoak lankidetzaz eskari bat bidali zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuara, honako kontu hauen gaineko informazio zehatza eskatu zen:

- Bidegiri azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauan –Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duenak— araututako kanona ordaintzeko beste ordainbide batzuk erabiltzen uzten ez dion diru-bilketaren arloan aplikagarria den araudi zehatza, eta aipatutako kanona ordaintzeko beste ordainbide batzuk ez onartzearen arrazoiak.
- Administrazio horrek uste ote duen Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra aplika daitekeela Bidegi merkataritzako foruzozietateak egindako kanonaren dirubilketan.
- Aipatutako 4/2020 Foru Arauan araututako kanona ez ordaintzeagatik egindako arau-hausteen arloan organo eskudunak hasitako administraziozehapenak ordaintzeko prozedurak arautzen dituen araudi espezifikoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari atxikitako Bidegi merkataritzako foruzozietateak emandako zerbitzuak artikulatzen dituen gomendio, agindu edo tresna juridikoa, azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauak— Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duenak— araututako kanona ordainarazi, kudeatu eta biltzeko.

3. Aurrerago, erakunde honen erregistroan sartu zen administrazioak erantzuteko bidalitako txostena, zeinean, laburbilduz, egungo araudia aipatu zen, baina ez, ordea, kanona ordaintzeko beste bitarteko batzuk ez onartzeko arrazoiak. Beraz, erabiltzaileen betebeharrak, gaitutako ordainbideak eta ez ordaintzearen ondorio juridikoak aipatu ziren.

Gainera, kanona “free Flow” teknologiaren bidez kobratzeko ezarritako sistema deskribatu zen. Hauxe adierazi zen:

*“A-636 autobian instalatutako kanona kobratzeko sistema “Free Flow” izenekoa da. Sistema horren ezaugarria da hesi fisikorik gabeko bidesaria ordaintzeko sistema bat dela, erabiltzaileak dagokion kanona ordaintzeko geldiarazi behar izatea edo abiadura murriztu behar izatea saihesten duena, eta, horrela, bidesari-kabinetan gerta daitekeen pilaketa ekiditen da.*

*Bidesari kanalizatu edo fisikoetan gertatzen den bezala, non ezin baita bidesaria ordaindu gabe dagoen bide batetik ibili, free-flow sisteman ere gauza bera gertatzen da; izan ere, kobratzeko kabinarik ez dagoenez, sistema bera kudeatzeko arrazoiengatik, 10. artikuluan adierazitako ordainbideak baino ezin*





*dira erabili. Beraz, ezin da ordainketa geroraturik egin, 12.1 artikuluan araututakoa izan ezik, igarotzean ez ordaintzeari buruzkoa baita, eta horrek kobrantza kudeatzeko errenergua dakar.*

*Free-flow bidezko bidesari bat ordaintzeko, ezinbestekoa da TAG gailu bat izatea edo sisteman alta ematea, 4/2020 Foru Arauaren 10. Artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, sistema horrek hainbat errei estaltzen dituzten arkuak ditu, ibilgailuak detektatzeko, matrikulen argazkiak ateratzeko, dagokien tarifa aplikatzeko tamaina kalkulatzeko eta, gainera, ibilgailuek eraman ditzaketan TAG gailuak irakurtzeko”.*

Administrazioak adierazi du ez ordaintze baten kobrantza kudeatzearen esparruan, 2022ko azaroaren 21etik, aukera dagoela ordaintzeke dagoen zorra bezeroen arretarako bulegoan ordaintzeko (Aritzeta: GI-20-KP/PK 14,800 20170 Usurbil (Gipuzkoa); beraz, ez da beharrezkoa Internet bidezko inolako izapiderik egitea, eta 2023an zehar aurreikusita dago aukera hori errepideen foru-sarean dauden kioskoetara zabaltzea.

Bidegik egindako kanonaren bilketaren eremuan aplikatu beharreko araudiari dagokionez, foru-erakundeak zera erantzun du: jurisprudentziaren arabera, badirudi Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra aplikatu behar dela emakida behar duten autobideetan; beraz, uler liteke ordaindu beharreko A-636 autobitari aplikatzen zaiola.

Aldundiaren arabera, zenbait arauk osatzen dute administrazio-zehapenak ordaintzeko prozeduren araudi espezifikoa, hona hemen: 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa; 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Zergei buruzkoa; eta 38/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erregelamendua onartzen duena.

Azkenik, aldundiaren eta Bidegiren arteko harreman juridikoak egituratzen dituzten tresna juridikoen harira, jakinarazi du zer foru-arau aplika dakizkiokeen Bidegiri kexaren egitatezko kasuan. Bestalde, alderdiek sinatutako hitzarmenak deskribatzen dira; zehazki, Bidegirekin 2011ko apirilaren 8an sinatutako Hitzarmen Orokorra eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Bidegiren kudeaketapean dituen azpiegitura guztietarako 1. Garapenerako Berariazko Hitzarmena, 2011ko apirilaren 8an sinatutakoa eta 2013ko ekainaren 26an, 2016ko ekainaren 21ean eta 2017ko maiatzaren 24an aldatutakoa. Hala ere, ez da kopiarik eman eta ez da horien edukia eskuratzeko bitarteko elektronikorik eskaini.

4. Emandako erantzun batzuk nahikoa zehatzak ez zirenez, eta eskatutako dokumentu batzuk bidali ez zirenez, Arartekoak egokitzat jo zuen laguntzeko



bigarren eskaera bat egitea, zeinean hizpide den administrazioari kontuan hartu beharreko elementu batzuk aurreratu baitzitzaizkion bide-azpiegiturak erabiltzeagatik ibilgailuei kargak aplikatzeari buruzko Europako araudiarekin lotuta. Zehazki, 1999/62/CE Zuzentarauaren<sup>1</sup> 14. artikulua honako hau ezartzen du: *“es necesario que los peajes y tasas no sean discriminatorios, no impliquen formalidades excesivas y no creen obstáculos en las fronteras interiores; que es preciso, por tanto, adoptar las medidas adecuadas para permitir el pago de peajes y tasas en cualquier momento y con los diversos medios de pago”*; bestalde, aipatutako xedapenaren 7. artikulua, Europako zenbait zuzentarauren bidez aldatutakoak (2022/362 Zuzentara<sup>2</sup> (EB)), kide diren estatuek bidesariak sartzeko eta mantentzeko bete beharreko irizpideak ezartzen ditu. Irizpide horien artean nabarmentzen da *ordainbide arrunt guztiak gaitu behar* direla.

Administrazioak adierazi duenaren arabera, *2022ko azaroaren 21etik, beste aukera bat ere badago ordaintzeke dagoen zorra bezeroen arretarako bulegoan ordaintzeko (Aritzeta: GI-20-KP/PK 14,800 20170 Usurbil, Gipuzkoa); beraz, ez da beharrezkoa Internet bidezko inolako izapiderik egitea, eta 2023an zehar aurreikusita dago aukera hori errepideen foru-sarean dauden kioskoetara zabaltzea*. Ildo horretatik, laudagarria da administrazioak herritarren eskubideak eta betebeharrak zaintzeko egin duen lana; alabaina, erakunde honek ez daki ordaintzeko zer modu eskaini zaien erabiltzaileei administrazioak aipatutako helbidean zorrak ordaintzeko, ezta aukera hori errepideen foru-sareko kioskoetara zabaltzeak izan dezakeen irismena zer nolakoa izango den ere. Nolanahi ere, deigarria da kexa hau eragin duen bidesariaren ordainketa egiteko ordaintzeko toki bat jarri izana bidesariaren menpe dagoen errepidearen zatitik 40 kilometro baino gehiagora.

Aurreko gogoetak jakinarazteaz gain, informazio osatua lortze aldera, kexagileari erantzun zehatz bat eman ahal izateko, Arartekoak honako hau eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Departamentuari:

- Ea Administrazioak Beasain eta Bergara artean bidesaria duen A636 autobidearen erabiltzaileei ordainbide arrunt guztiak eskaintzea aurreikusten duen.
- Zer bulego edo instalazio mota diren administrazioak 2023an foru errepide sarean gaitu nahi dituen kioskoak.
- Ea administrazioak Beasain eta Bergara artean bidesaria duen A636 autobidearen tartean kioskoak jartzea aurreikusten duen, eta kiosko horiek ohiko ordainbideak eskainiko dituzten.

<sup>1</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-1999-81442>

<sup>2</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2022-80351>

- Administrazioak Beasain eta Bergara arteko bidesaria duen A-636 autobidean zein datatan eta zehatzmehatz non aurreikusten duen aipatutako kioskoak ezartzea.
- Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Bidegiren arteko 2011ko apirilaren 8ko hitzarmen orokorraren eta Bidegik kudeatzen dituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren azpiegitura guztietarako 1. hitzarmen espezifikoaren, 2011ko apirilaren 8an harpidetu zena eta 2013ko ekainaren 26an, 2016ko ekainaren 21ean eta 2017ko maiatzaren 24an aldatu zena, copia eskatzen da edo, bestela, horiek argitaratuta dauden gardentasunatariko helbide elektronikoak.

5. Laguntzeko bigarren eskaerari erantzuteko, administrazioak txosten bat bidali zuen, zeinean haxe adierazi baitzen:

*“Hau da, Europako Zuzentarauak free flow sistemaren erabilera sustatzen du, hala nola A-636 autobian instalatutakoa; izan ere, horrela, trafikoaren arintasuna ahalik eta gutxien oztopatuz egiten da ordainketa, ibilgailuek ez baitute gelditu behar ordainketa egiteko. Ondorioz, nahitaez erabili behar dira ordaintzeko metodo elektronikoak. Are gehiago, artikulua horretan bertan zehazten da estatu kideak ez daudela behartuta ordainketa puntu fisikoak edukitzera, ez kanona kobratzen den errepidetik hurbil eta ez urrun, eta, beraz, ondorioztatzen da ez daudela behartuta ordainketa eskudirutan egitera.*

*Horregatik ezartzen dira ordainketa metodo elektroniko arrunt gisa (kontzeptu zehaztugabea) bai TAG, bidesariak ordaintzeko metodo elektroniko nagusia, zeinaren erabilera elkarreragingarria sustatzen eta arautzen baita martxoaren 19ko 2019/520 Zuzentaruauan (errepideko teleordainketa-sistemen elkarreragingarritasunari buruzkoa eta Batasunean errepideko kanonak ez ordaintzeari buruzko informazioaren mugaz gaindiko trukea errazten duena), bai kreditu txartela, hori baita ordainketa elektronikoetarako metodorik hedatuena, erabiliena, errazena eta efizienteena. Adierazi behar da, ordaintzeko beste metodo elektroniko batzuk, esate baterako, banku transferentzia edo ordainketa gutuna, ez direla ohikoak eragiketa mota horretarako.*

*Laugarren hausnarketari dagokionez, non 2021eko azaroaren 21etik aurrera Aritzetako bezeroaren arretarako bulegoan ordaintzeko gaitutako aukera aipatzen den, azpimarratu behar da aukera hori bide azpiegitura erabiltzen den unean kanona ordaintzen ez den kasuetara mugatzen dela, eta **ordaintzeke dagoen zorra** ordaintzeko dela, % 20ko errekarguarekin, hala xedatzen baitu Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobiko Beasain-Bergara tarte jakin batzuk erabiltzeko kanona arautzen duen azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauaren 12.1 artikulua. Aurrez aurreko aukera horren ordaintzeko modua kreditu*



*txartela da oraindik ere, eta ez da inongo izapide elektronikorik egin behar, ezta Internet erabili behar ere. Horrez gain, 2023an, errepide inguruetan dauden kioskoak gaitzea aurreikusten da, erabiltzaileak ordaindu gabeko zorra kreditu txartelarekin ordaindu ahal izan dezan, bezeroaren arretarako bulegora joan beharrik gabe”.*

Gai jakin batzuei buruz eskatutako informazio xeheari dagokionez, honako hau adierazi zen:

- *“Administrazio honen ustez, free-flow bidesariak ordaintzeko modu arruntak TAG gailu bat (Vía\_T) edo ibilgailuaren matrikularekin aurretik lotura duen kreditu txartela erabiltzera mugatzen dira. A-636 errepidea erabiltzen den unean ordaintzeko modurik ez badago eta ordaintzen ez bada, ordaintzeko dagoen zorra % 20ko errekaruarekin ordaintzeko aukera dago, 4/2020 Foru Arauaren 12.1 artikulua araber. Ordaintza hori kreditu txartelarekin egin daiteke Bidegiren WEB orriaren bidez eta Internet erabili nahi ez duten erabiltzaileek Aritzetako bezeroaren arretarako bulegoan bertan ordain dezakete.*
- *Kioskoak Internet duten puntuak dira, eta interfaze bat dute, ibilgailua erraz identifikatzeko eta ordaindu gabeko ibilbide guztiak kreditu txartelarekin ordaintzeko aukera ematen duena.*
- *Kioskoak A-636 errepidearen inguruan jarriko dira, eta ordaintzeko modua kreditu txartela izango da.*
- *Kioskoak 2023ko abenduaren 31 baino lehen egongo dira instalatuta. Kokapen zehatzak erabakitzeko daude”.*

Tresna juridikoen kopiaren eskaeraren harira, hauxe adierazi zen:

*“Hitzarmen orokorraren eta 1. Hitzarmen espezifikokoaren kopia eskaerari dagokionez, adierazi behar da dokumentu horiek ez dutela inolako aipamenik edo xehetasunik egiten erabiltzaileen kanonaren ordaintetari buruz, kanonaren erregulazioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobideko Beasain-Bergara tarte jakin batzuk erabiltzeko kanona arautzen duen azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauan jasotakoa baita. Arau hori Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauaren azken xedapenetako seigarrenak aldatu zuen. Horregatik, ez da egokitzat jotzen dokumentazio hori aurkeztea. Hala ere, erakunde horrek beharrezkotzat jotzen badu dokumentazio hori bidaltzea, ez dago inolako eragozpenik bidaltzeko”.*

Azken batean, eskatutako dokumentuak ez ziren helarazi.





Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1. Azaldutako aurrekarien arabera, gaur egun kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauan ezarritako ordainbideez bestelako baten bitartez kanona ordaintzeko izandako zailtasunak eragin zuen kexa. Horrenbestez, kexagilea ez dago A-636 autobioiko Beasain eta Bergara arteko tartean administrazioak jarritako telebidesariko sistema elektronikoaren funtzionamenduaren aurka, ezta karga ordaintzearen aurka ere.

Ondorioz, bereizi egin behar dira, alde batetik, aldundiak instalatutako telebidesari-sistema eta kanona ordaintzeko prestatutako ordainbideak, eta, bestetik, A-636 autobioaren kanonaren mendeko errepide-zatitik igarotzean ez dagoela bestelako bidesari- eta ordainketa-sistematik.

Hori horrela, Arartekoak jarraian adierazi dituen gogoetak, funtsean, Aldundiak araututako kanona kanon hori arautzen duen 4/2020 Foru Arauan ezarritako sistemez bestelako baten bidez ordaintzeko ezintasunari buruzkoak dira.

2. Arartekoak ezagutzen ditu errepideko telebidesari-sistemen elkarreragingarritasuna arautzen duten arau eta xedapen berriak, hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko martxoaren 19ko 2019/520 (EB) Zuzentaraua, errepideko telebidesari-sistemen elkarreragingarritasunari buruzkoa eta Europar Batasunean errepideko kanonak ez ordaintzeari buruzko informazioaren mugaz gaindiko trukea errazten duena<sup>3</sup>, eta martxoaren 8ko 183/2022 Errege Dekretua, Espainiako errepideetan telebidesari-sistemen elkarreragingarritasuna arautzen duena<sup>4</sup>, berariaz ezartzen baitute **arau horietan xedatutakoa ez dela aplikagarria kobratzeko bitarteko elektroniko edo telematikorik ez duten bidesari-sistemetan**, eta, beraz, erakunde honen ustez bitarteko elektronikoak lehenestea egokia da.

Telebidesariaren sistema elektronikoaren, horren alderdi teknikoaren eta gaitutako ordainbideen harira, kexagileak ez dituzenez aurkaratu, erakunde honek ez du horien inguruko analisirik eta baloraziorik egin.

<sup>3</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2019-80521>

<sup>4</sup> <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-3675>



Kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauaren 5. artikuluan definitzen da A-636 autobia-aren tarte erregulatutik igarotzean ordaindu beharreko bidesari- eta karga-sistema, honela:

*“5. artikulua. Sistemaren definizioa.*

*ibilgailuak detektatzeko, identifikatzeko eta haiei kanona egozteko, free flow motako sistema ireki bat ezarriko da, ibilgailuak gelditu gabe”.*

Gainera, kanona ordaintzeko, gailu telematikoak soilik eduki behar dira, edo matrikula ordainbide bati lotu, honela:

*“6. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.*

*1. Foru arau honen 3. artikuluan aipatzen diren ibilgailuekin A-636 autobian kanonaren ordainpeko zatietatik dabiltzan erabiltzaileak behartuta egongo dira 8. artikuluan ezarritako kanonari dagokion zenbatekoa ordaintzera, 4. artikulua-aren arabera salbuetsita ez badaude behintzat.*

*2. Kanona ordaintzeko, erabiltzaileek hura baldintza operatiboetan erabiltzea ahalbidetzen duten baliabide teknikoak eduki behar dituzte; edo, bestela, matrikula ordainbide batekin lotzea ahalbidetzen duen informazioa eman beharko dute, Bidegi SAK argitaratutako web informazioaren arabera.*

*7. artikulua. Arkuak eta ibilbideen esleipena. 1. Kobrantsa gauzatu ahal izateko, 2. artikuluan deskribatzen diren ordainpeko bide zatietan ondoren zehazten diren arkuak jarriko dira. Arku bakoitzari bide zati eta ibilbide luzera jakin bat esleitzen zaio, honela: a) Beasaingo arkuak: — Zatia: Beasain - Ormaiztegi. — Luzera: 2,8 kilometro. b) Ezkioko arkuak: — Zatia: Ormaiztegi - Zumarraga. — Luzera: 5,4 kilometro. c) Deskargako arkuak: — Zatia: Legazpi/Urretxu - Bergara. — Luzera: 7,3 kilometro. — Irteera/sarrera Antzuolako erdilotunean: 2,50 kilometro. 2. «Legazpi/Urretxu - Antzuolako erdilotunea» ibilbidea aplikatu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da ibilgailuak TAG gailu bat erabiltzea bidaia ordaintzeko”. (Arartekoak azpimarratu du).*

Egiaztatu da, beraz, administrazio horrek, foru-arau baten bidez, **portikoen bidezko bidesari-sistema bat arautu duela, soil-soilik elektronikoa**, errepideko telebidesari-sistema bat, hain zuzen, zeinak, aipatutako arauen definizioen arabera, *bidesaria kobratzeko sistema bat baita, zeinean erabiltzaileak bidesaria ordaintzeko duen betebeharra lotuta baitago ibilgailua leku jakin batean dagoela automatikoki hautematearekin, ibilgailuaren EIBarekin<sup>5</sup> urrunetik komunikatzeari edo matrikula*

<sup>5</sup> Ibilgailuan instalatutako ekipamendua (EIB): bidesari-zerbitzuaren parte gisa erabili behar den osagai-multzoa (ekipo eta programa informatikoak), ibilgailu baten barruan instalatuta edo eramanda datuak urrutitik erregistratzeko, biltegitratzeko, prozesatzeko eta jasotzeko zein transmititzeko; gailu independentea izan daiteke edo ibilgailuan integratuta egon.



automatikoki detektatzeari esker, hori baita ordaintzeko betebeharra dakarren faktore bakarra. (Arartekoak azpimarratu du).

Definizio horrek zalantza sortzen dio Arartekoari aipatutako elementurik ez duten errepidearen erabiltzaileei gertatzen zaienari buruz, dela ibilgailuan ez dutelako ekiporik instalatu, dela matrikula ez dagoelako bidesaria kobratzeko sistemari lotuta, eta, beraz, Arartekoak ez daki zein faktorek eragiten duen ordaintzeko betebeharra beste aukerarik ez badago.

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du beste ordainbiderik gaitzen bide horretarako. Matrikulak hartzen dituzten portikoak baino ez daude, edo TAG gailuak, "ordaintzeko betebeharra eragiten dutenak".

Hori da kasu honetan aipatzen den gai nagusia: egindako bidaia beste ordainbide batzuen bitartez ordaintzeko ezintasuna.

3. Administrazioak argudiatu du egungo bidesari-sistema kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauan dagoela oinarrituta. Hauxe dio arau horren hitzaurreak:

*“Koherentziagatik eta sarearen uniformetasunagatik, uste dugu, alde batetik, neurri eraginkorrena, bidezkoena eta koherenteena dela erabileragatik ordainketa sistema bat ezartzea zeharkako korridorean (A-636 autobia), motordun ibilgailu guztientzat, motozikletentzat izan ezik, sistema ireki baten arabera, N-1 eta A-15 errepideetako zenbait zatitan jada ezarrita dagoenaren antzeko teknologiarekin (free flow); izan ere, horrela errepidean jarriko diren arkuek identifikatu egingo dituzte ordainpeko tarteetatik zirkulatzeko ibilgailuak, egin dituzten ibilbideei dagokien zenbatekoa egotziz. Neurri hori bat dator, batetik, Batzar Nagusien talde txostengileak, Gipuzkoan errepideak kudeatzeko sistema aztertzeoak, 2010eko martxoaren 4ko bileran onetsitako txostenarekin, eta bestetik, Europako 1999/62/EB Zuzentarauaren irizpideekin”.*

Azpiegitura jakin batzuk erabiltzeagatik salgaiak garraiatzeko ibilgailu astune kargak aplikatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 17ko 1999/62/CE Zuzentarauaren<sup>6</sup> irizpideetan oinarritzen da foru-araua. Zuzentaru hori, gerora, beste zuzentaru batzuek aldatu zuten, hala nola Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko irailaren 27ko 2011/76/UE Zuzentaruak<sup>7</sup> eta 2022/362 (EB) Zuzentaruak<sup>8</sup>. Azken batean, garraio jasangarria sustatzea eta azpiegitura-kostuengatik kargak ezartzea da foru-arauaren oinarria.

<sup>6</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-1999-81442>

<sup>7</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2011-82087>

<sup>8</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2022-80351>



Erakunde honen iritziz, telebidesarien sistemak Europako arauetan oinarrituta egon daitezke; alabaina, ez dirudi arauok telebidesarien sistemak eskusiboki eta modu baztertzailan erabiltzeko agintzen dutenik, bidesarien eta azpiegiturengatiko tasak kobratzeko beste sistema batzuen kalterako.

Are gehiago, kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauak berak ez du kasu batean ere ezartzen matrikulak eta beste gailu batzuk detektatzen dituen telebidesarien sistema elektronikoko bat erabiliko denik. Honako hau dio, besterik gabe: *“Ibilgailuak detektatzeko, identifikatzeko eta haiei kanona egozteko, free flow motako sistema ireki bat ezarriko da, ibilgailuak gelditu gabe”* (5: artikulua) A-636 errepedeko zenbait puntutan kokatutako portikoen bidez (7. artikulua). Beraz, gailu elektronikokoak eta matrikulak detektatzea ordaintzeko betebeharra eragiteko bitarteko gisa baino ez ditu aipatzen.

Alderdi hori materialki zehaztugabea da, eta aurrerago horri buruzko gogoetak egingo ditugu.

4. Arestian azaldutakoa ikusita, eta Europako zuzentzaruek ez dutenez betebeharririk xedatzen telebidesariak edo soilik elektronikokoak diren bidesari-sistemak ezartzeko, jarraian merezi du kanona kobratzeko moduari buruz hausnartzea.

Jadanik adierazi den bezala, araua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko ekainaren 17ko 1999/62/CE Zuzentzaruan oinarritzen da. Zuzentzari hori azpiegitura jakin batzuk erabiltzeagatik salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunei kargak aplikatzeari buruzkoa da<sup>9</sup>, eta, ondoren, 2011/76/UE<sup>10</sup> eta 2022/362<sup>11</sup> zuzentzaruek aldatu zuten.

Aipatutako azken zuzentzari horrek honela definitzen du azpiegituragatiko tasa: *“tasa percibida con objeto de recuperar los costes de construcción, mantenimiento, funcionamiento y desarrollo relacionados con infraestructuras, soportados en un Estado miembro;”*, eta, beraz, badirudi karga bat datorrela kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauaren hitzurrean jasotako azpiegituragatiko tasaren kontzeptuarekin:

*“Kanonaren zenbatekoak azpiegitura kostuak berreskuratzeko printzipioa oinarri hartuta ezarri dira. Zehazki, kanonaren zenbatekoak zuzeneko lotura izango du azpiegituraren eraikuntza kostuekin eta ustiaketa kostuekin, kanona kudeatzeko*

<sup>9</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-1999-81442>

<sup>10</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2022-80351>



*kostuekin eta sarea garatu, hobetu eta mantentzeko kostuekin, egitura konpontzekoak barne”.*

Ordainbideen harira, kanona arautzen duen 4/2020 Foru Araua aurrez aipatutako zuzentarauetan oinarritzen da, berriz ere.

1999/62/CE Zuzentarauak hauxe dio oinarrietan:

*“Considerando que es necesario que los peajes y tasas no sean discriminatorios, no impliquen formalidades excesivas y no creen obstáculos en las fronteras interiores; que es preciso, por tanto, adoptar las medidas adecuadas para permitir el pago de peajes y tasas en cualquier momento y con los diversos medios de pago;” (Arartekoak azpimarratu du).*

Eta, bestalde, 2011/76/UE Zuzentarauak hauxe ezartzen du 7. undecies artikuluan:

*“1. La aplicación y el cobro de los peajes y las tasas por utilización, y la supervisión de esos pagos, se efectuarán con la mínima perturbación de la fluidez del tráfico, evitándose todo control o comprobación obligatorios en las fronteras interiores de la Unión. A tal fin, los Estados miembros cooperarán para el establecimiento de métodos que permitan a los usuarios de la carretera abonar los peajes y las tasas por utilización durante las 24 horas del día, al menos de forma electrónica o en la frontera o en los principales puntos de venta, por todos los medios de pago corrientes, dentro o fuera de los Estados miembros donde se apliquen. Los Estados miembros no estarán obligados a disponer de puntos de pago físicos.*

*2. Las modalidades de recaudación de los peajes y de las tasas de usuarios no supondrán desventajas financieras ni de otra índole para los usuarios no habituales de la red de carreteras. En particular, cuando algún Estado miembro recaude los peajes o las tasas de usuarios exclusivamente con un método que exija el uso de una unidad instalada a bordo del vehículo, garantizará que todos los usuarios puedan adquirir, sin excesivas dificultades administrativas y a un precio razonable, unidades de instalación a bordo que cumplan con los requisitos de la Directiva 2004/52/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 29 de abril de 2004, relativa a la interoperabilidad de los sistemas de telepeaje de las carreteras de la Comunidad”.* (Arartekoak azpimarratu du).

Alabaina, kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauaren 6. artikulua honako betebeharrak ezartzen dizkie erabiltzaileei:

*“6. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.*



1. Foru arau honen 3. artikuluan aipatzen diren ibilgailuekin A-636 autobian kanonaren ordainpeko zatietatik dabiltzan erabiltzaileak behartuta egongo dira 8. artikuluan ezarritako kanonari dagokion zenbatekoa ordaintzera, 4. artikulua arabera salbuetsita ez badaude behintzat.

2. Kanona ordaintzeko, erabiltzaileek hura baldintza operatiboetan erabiltzea ahalbidetzen duten baliabide teknikoak eduki behar dituzte; edo, bestela, matrikula ordainbide batekin lotzea ahalbidetzen duen informazioa eman beharko dute, Bidegi SAK argitaratutako web informazioaren arabera. (Arartekoak azpimarratu du).

Kanona bitarteko elektronikoen bidez soilik ordaintzeko eskatzea, edota Bidegiren webgunean matrikula erregistratzearen bidez, ez dirudi bat datorrenik Europako arauak jasotzen duenarekin; izan ere, hauxe dakar: *"es necesario que los peajes y tasas no sean discriminatorios"* eta, beraz, honako hau agintzen du: *"adoptar las medidas adecuadas para permitir el pago de peajes y tasas en cualquier momento y con los diversos medios de pago"*. (Arartekoak azpimarratu du).

Hori dela eta, egokia dirudi kanonaren exijentzia (arauaren hitzaurreraren arabera interes publikoko helburu bat betetzera dago bideratuta, bilatzen den legezko helburuarekiko proportzionala) ahalik eta modu onuragarrienean interpretatzea herritarren alde; beraz, egokia dirudi ordainbide arruntak gaitzea, eta eskuragarri jartzea, adibidez, salmenta-puntu nagusietan, arauak ezartzen duenarekin bat, ordainbide hori orain dagoen bitarteko erabat elektronikoen osagarri izan dadin.

Izan ere, gauza bat da herritarrek aukera izatea boluntarioki teknologiaren abantailez baliatzeko, eta beste bat administrazioak hori egitera behartzea.

Eta foru-araudia interes publikoko helburu bat betetzera bideratuta badago, logikoa dirudi herritar guztien onerako jardutea, Auzitegi Gorenak 2021eko martxoaren 3ko epaian dioenarekin bat<sup>12</sup> *"el interés general o público pertenece y beneficia a los ciudadanos no a la Administración como organización servicial que lo gestiona"*.

5. Arestian azaldutakoaren harira, badirudi aldundiak badakiela beste ordainbide osagarri batzuk gaitzeko beharrezana dagoela; izan ere, Arartekoak laguntzeko bidali dizkion eskaerei erantzuteko, aldundiak azaldu du 2023an zehar aurreikusita dagoela kioskoak jartzea *"ubicados en las proximidades de las carreteras donde la propia persona usuaria podrá realizar el pago de la deuda pendiente con tarjeta de crédito sin tener que desplazarse hasta la oficina de atención al cliente."*

Gainera, honako hau ere adierazi da: *"son puntos dotados de Internet con un interface que permitirá de una manera sencilla identificar el vehículo y realizar el pago con tarjeta de crédito de todos los trayectos impagados. Los kioscos se instalarán en el entorno de la A-636 y el medio de pago será la tarjeta bancaria."*



*Los kioskos estarán instalados antes del 31 de diciembre de 2023. Las ubicaciones concretas están pendientes de decisión.”*

lido horretatik, eskertzekoa da administrazioak duen prestutasuna herritarrei sortutako zorra ordaintzea errazteko, baina, jadanik aipatu denez, Europako arauak ez die erreferentziarik egiten **zorra** ordaintzeko bitartekoei, baizik eta bidesari-sistemari eta kanona **errepidean zirkulatu den unean** ordaintzeko bitartekoei. Gainera, ez dirudi koherentea denik zorra ordaintzea erraztea kanona errepidean zirkulatu den unean ordaintzea errazten ez denean.

Horrenbestez, Arartekoak azpimarratu nahi du diru-bilketako zerbitzuak kanona ordaintzeko beste bide batzuk ere eskaini behar dituela dagoenaz gain; izan ere, ordainketa elektronikoa baino ez da eskaintzen, administrazio horrek onartzen duen bitarteko bakarra delako.

6. Kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauaren bidez administrazioak ezartzen duen azpiegituragatiko tasa hertsapenez eskatzen da interes orokorreko helburuarekin. Beraz, ondare-prestazio publikoa da, Konstituzioaren [31,3. artikuluan](#) xedatutakoarekin bat, eta legezko erreserbaren printzipioari lotuta dago. lido horretatik, beharrezkoa da kanona arautzen duten arau horiek Konstituzioko berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak errespetatzea.

Hau da, araua interes publikoaren aldekoa eta lortu nahi den legezko xedearekiko proportzionala den helburu bat betetzera bideratuta badago, hitzaurrean adierazitakoarekin bat, egokia dirudi kanona exijitzeak inolako diskriminaziorik ez sorraraztea bidearen erabiltzaileen artean.

Diskriminazio hori sor daiteke, besteak beste, herritarrek bitarteko teknikorik ez badute internet bidez Bidegiren webgunera konektatzeko, edota bitarteko zein baliabide nahikorik ez badute TAG bat eskuratzeko. Akronimo hori foru-arauan erabiltzen da, baina ez da definitzen, eta, antza, aipatu den EIB<sup>13</sup> gailuaren kontzeptuarekin bat dator; izan ere, [183/2022 Errege Dekretuaren](#) arabera, *ibilgailuan instalatu den ekipamendua edo programa informatikoak* dira, zeinen arabera erregulatzen baita Espainiako errepideetako telebidesari-sistemen elkarreragingarritasuna.

---

<sup>12</sup> [ECLI:ES:TS:2021:1137](#)

<sup>13</sup> Espainiako errepideetako telebidesarien sistemen elkarreragingarritasuna arautzen duen martxoaren 8ko 183/2022 Errege Dekretuaren arabera: Ibilgailuan instalatutako ekipamendua (EIB): bidesari-zerbitzuaren parte gisa erabili behar den osagai-multzoa (ekipo eta programa informatikoak), ibilgailu baten barruan instalatuta edo eramanda datuak urrutitik erregistratzeko, biltegitratzeko, prozesatzeko eta jasotzeko zein transmititzeko; gailu independentea izan daiteke edo ibilgailuan integratuta egon.



Nolanahi ere, aurrez aipatutako ordainbideek ezagutza teknikoa eta informatikoa eskatzen dute, bai eta, kasuan-kasuan, internetera konektatzea ere. Baliteke errepidea erabiltzen duten herritarretako batzuek ezagutza horiek ez izatea, eta 4/2020 Foru Arauak ez ditu kontzeptu horiek argitzen ulergarriagoak eta eskuragarriagoak izan daitezten.

Horren harira, 1999/62/EC Zuzentarauaren 7. undecies artikulua 2. apartatuak hauxe dio:

*“2. Las modalidades de recaudación de los peajes y de las tasas de usuarios no supondrán desventajas financieras ni de otra índole para los usuarios no habituales de la red de carreteras. (...)”*

Azken batean, Arartekoak azpimarratu behar du egungo ordainbideek diskriminazioa eragin dezaketela eta ez dela baliabide nahikorik eman kargaren xede den errepidetik zirkulatzen duen erabiltzaile orok ordainbideok ulertzeko eta erabiltzeko

7. Aurrekoaren ondorio gisa, berriz ere aipatu behar da kanona erregulatzen duen araua, 5. artikuluan bidesari-sistema honela definitzen duen aldetik: *“Ibilgailuak detektatzeko, identifikatzeko eta haiei kanona egozteko, free flow motako sistema ireki bat ezarriko da, ibilgailuak gelditu gabe”, portikoak jarriko direla (7. artikulua) eta honako hauek izango direla ordainbideak, besteak beste: “a) TAG gailua. b) Erregistro telematikoa, Bidegi SAren webgunearen bidez, garatu daitezkeen beste sistema telematikoen bidez, banku txartela edo erregistro telematikoak etorkizunean onar dezakeen beste edozein ordainbide adieraziz. c) AP-8 edo AP-1 autobideetako ordainleku bideratuetan erabilitako banku txartela, Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez zehaztutakoaren arabera”.*

Foru-araudiak ez ditu definitzen “free flow”, “portiko” eta “TAG gailu” kontzeptuak, eta ez du azaltzen erregistro telematiko bat zer den eta zer helbide elektronikoren bidez egin daitezkeen.

Arartekoaren iritziz, kontzeptu horiek segurtasun-gabezia juridikoa sortzen dute, eta, beraz, ez dirudi bat datozenik erregulazio onaren printzipioekin, zeinak Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen [129. artikuluan](#) jasota baitaude, honela:

*“129. artikulua. Erregulazio onaren printzipioak.*

*1. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Zioen azalpenean edo atarikoan —legeaurreproiektua den edo*



*erregelamenduproiektua— behar bezala justifikatu beharko da printzipio horiei lotzen zaiela.*

2. (...).

3. *Proporzionaltasun-printzipioaren arabera, proposatzen den ekimenak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa izan beharko du, eta egiaztatu beharko da, lehenago, ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo xede diren pertsonen betebeharrak gutxiago ezarriko direnik.*

4. *Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Espainiakoa zein Europar Batasuneko, araugintzaesparru egonkor, auresangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzeko, eta erraztasunak emango dituen ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonen eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko”.*

Hain zuzen ere, aurreko gogoetekin bat etorriz, egokia dirudi administrazioaren jarduketak eta horretarako arauak proporzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioetara egokitzea, gaur egun dagoen bidesari-sistema Europako eta Estatuko esparrura egokitzeko, eta bidesari-sistemei buruzko kontzeptuak behar bezala definitzea eta bide-erabiltzaileen artean inolako diskriminaziorik edo desabantailarik sortu gabe igarotzean kanona ordaintzea ahalbidetuko duten ordainbide osagarriak gaitzea.

Nolanahi ere, administrazioak bere jardunean kanona arautzen duen 4/2020 Foru Arauan adierazitakoa bete duenez, ezin da esan foru-erakundearen jarduketa irregularra izan denik. Hala ere, Europako zuzentarauen zentzuak eta administrazioaren jarduketa interes publikoari egokitzeak, edozein diskriminazio mota saihestearren, komenigarri egingo luke arau hori egokitzea, beste ordainbide arrunt ez-elektroniko batzuk barne hartzeko. Aldaketa horren ondorio gisa, bidezkoa litzateke hori posible egiten duten sistemen gaikuntza operatiboa.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako iradokizun hau egin zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari:

### Iradokizuna

Aldatu dezala kanona arautzen duen 4/2020 Foru Araua, A-636 errepideko kanona ordaintzeko ordainbide arruntak gaitzeko, gaur egun ezarrita dauden sistema erabat elektronikoen osagarri izan daitezzen.